

"2024ko Ordainketen babesa" PROMOZIOAREN OINARRIAK
(2024ko azaroaren 25etik 2025eko martxoaren 31ra)

1. **Erakunde-sustatzailea: "2024ko ORDAINKETEN babesa" promozioaren** (auerrantzean, "Promozioa" erakunde-sustatzailea BanSabadell Seguros Generales, S.A. de Seguros y Reaseguros ⁽¹⁾ da, IFK A-64194590 eta sozietatearen helbidea c/ Isabel Colbrand, 22, 28050 Madril dituen, APFZOren Erakunde-aseguratzaileen erregistroan izenamanda dagoena, C-0767 gakoarekin (aurrerantzean, "Erakunde-sustatzailea" edo BSSG")
2. **Promozioaren aldia:** 2024ko azaroaren 25etik 2025eko martxoaren 31ra, biak barne (aurrerantzean, "Promozioaren aldia"), baina Erakunde-sustatzaileak noiznahi luzatzeko, bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea gordetzen du.
3. **Sustatutako produktua:** BSSG-ren Urtero berritu daitekeen ordainketen babes-asegurua BanSabadell Mediación, Operador de Banca-Seguros Vinculado del Grupo Banco Sabadell, S.A. (aurrerantzean, "BanSabadell Mediación") bidez kontratuta, eta Oinarri hauetan zehazten denaren arabera kontratuta (aurrerantzean, "Sustatutako aseguru").
4. **Partaideak:** Sustapenaren aldian Sustatutako aseguru hartzaile gisa kontratatzen duten pertsona fisiko diren eta Espainian bizi diren bezeroek parte hartu ahal izango dute eta aprobetxatu ahal izango dira promozio honetaz (aurrerantzean, "Partaideak/k").
Partaideetatik kanpo geratzen dira, berariaz, Banco Sabadell Taldeko langileak eta langile-ohiak.
5. **Sustapenaren pizgarria:** Oinarri hauetako 6. klausulan zehaztutako promozioaren baldintzak betetzen dituzten Partaideek Erakunde-sustatzaileak egindako ordainketa bakar bat jasoko dute, banku-transferentzia bidez, **HIRUROGEI (60) eta LAUROGEITA HAMAR (90)** egun arteko epean, Sustatutako aseguruaren lehen ordainagiria kobratzen den egunetik kontatzen hasita eta aseguru horren ordainketa egiten den kontu berean.

Sustapenaren pizgarria Sustatutako aseguruaren lehen urteko kuotan soilik ordainduko da. Pizgarriaren zenbatekoa **EHUN eurokoa (100 €)** izango da Sustatutako aseguruaren poliza berri bakoitzarengatik Oinarrietan zehaztutako baldintzetan.

6. **Sustapenaren baldintzak:**
 - a. Sustapenaren pizgarria jasotzeko eskubidea izateko (5. klausulan zehazten den moduan), Partaideak Sustatutako aseguruaren kontratazio-eskaera bat eduki beharko du, 2024ko azaroaren 25etik 2025eko martxoaren 31ra arte, poliza indarrean sartzeko azken eguna 2025eko martxoaren 31 duena. Gutxienez, urtebetez mantendu beharko du ordainketak egunean dituela. Polizaren kontratazioa BSSGren harpidetza-arauen mendekoa da, baita dagokion aurrekontratuko dokumentazioaren eta kontratu-dokumentazioaren araberkoa ere.
 - b. Urtero berri daitekeen ordainketen babes-aseguruaren urteko guztizko primak **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR eurokoa (150 €) edo gehiagokoa izan behar du.**
 - c. Sustatutako aseguru behar baino lehen amaituz gero, indarrean sartu zen datatik hasi eta urtebete baino lehen amaituz gero edo ordainagiriren bat ordaintzen ez bada, Pizgarria jasotzeko eskubidea galduko da.
 - d. **Promozio honetatik kanpo geratzen dira berariaz: (i) Sustatutako aseguruaren polizak ordezkatzea, baita (ii) Sustatutako aseguruaren urteko kuotak baliogabetu eta, ondoren, berriro aktibatu diren polizak (edo berriro kontratatu direnak, baina aurrez aseguratu den arrisku bat aseguratzeko dutenak), atal honetako (i) eta (ii) zenbakietan adierazitako kasuak kontratatuta zen polizaren bajaren eta poliza berriaren eskaera-data 30 egun baino gutxiago denean, dagozkion aseguruak kontratatzeko eskaintzen diren edozein kontratazio-kanal erabiliz.**
Ez dira aseguru berrizat joko ere Sustatutako aseguruaren polizen berritzeak.
 - e. Sustapen honen partaidetza eta onurak bateraezinak dira Partaideak produktu berekin parte hartzeko eskubidea duen aktibo dagoen beste edozein promoziotan parte-hartzearekin eta onurak jasotzearekin.

"2024ko Ordainketen babes" PROMOZIOAREN OINARRIAK
(2024ko azaroaren 25etik 2025eko martxoaren 31ra)

7. **Datu pertsonalen babesari buruzko oinarritzko informazioa:**

Arduraduna	BanSabadell Seguros Generales, S.A. de Seguros y Reaseguros
Xedea	"2024ko Ordainketen babes" sustapenaren kudeaketa, Ordainketen babesaren aseguru baten kontratuaren kontratazioarekin erlazionatuta.
Eskubideak	Sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta eramateko
Informazio osagarria	Informazio osagarria kontsultatzeko, joan https://www.sabadellsegurosypensiones.com/es/sobre-nosotros/tratamiento-datos-bssg

8. **Fiskalitatea:** pizgarria ordaintzeko unean indarrean dagoen fiskalitatea aplikatuko da. Gaur egun, pizgarriaren ordainketa ondare-irabazitza jotzen da PFEZen eta ez du atxikipenik.
9. Oinarri hauek onartuz gero, den-denak onartzen dituzu, baita Promozioaren garapenean oinarri horiek interpretatzean sortutako edozein eztabaida edo gatazka konpontzeko Erakunde-sustatzailearen irizpidea ere, betiere, partaideen kontrakoa ez bada.

⁽¹⁾ Urtero berri daitekeen ordainketen babes BanSabadell Seguros Generales Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros-en aseguru bat da, IFZ A64194590 eta sozietatearen helbidea calle Isabel Colbrand n.22, 28050, Madrid dituen, APFZOren Erakunde-aseguratzaileen erregistroan izena emanda dagoena, C-0767 gakoarekin.

BanSabadell Mediación, Operador de Banca-Seguros Vinculado del Grupo Banco Sabadell S.A. ("BanSabadell Mediación") bitartekari gisa jardundako eta Banco Sabadell S.A. sarearen bidez komertzializatutako asegurua, banaketa-sarearen zerbitzuak emateko kontratu bat izenpetatu duen erakundea. BanSabadell Mediación, Avenida Óscar Esplá, 37, 03007 Alacant helbidean dagoena, A03424223 IFZ duena, Alacanteko Merkataritza Erregistroan eta APFZOren aseguru-banatzaileen administrazio-erregistroan inskribatuta dagoena OV-0004 gakoarekin, BanSabadell Seguros Generales, S.A. de Seguros y Reaseguros enpresaren izenean jardunez, eta une oro indarrean dagoen aseguru eta berraseguru banaketari buruzko araudian xedatzen denari jarraikiz erantzukizun zibilaren aseguru bat izenpetuta dauka. BanSabadell Mediación enpresak aseguru-agentziaren kontratu bat egin duen erakunde-aseguratzaileak kontsultatzeko, joan www.bancsabadell.com/bsmediacion helbidera